



2013ko otsailaren 26ko 8/2013 FORU DEKRETUA, fakturatzeko obligazioak arautzen dituen Erregelamendua onartzen duena.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako Erregelamendua eta berau onartzen duen Foru Dekretua jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, erregelamenduaren zenbat artikulua aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

AURKIBIDEA

ATARIKO TITULUA.....	6
ERAGIKETAK DOKUMENTATZEKO OBLIGAZIOA.....	6
1. artikulua. Eragiketen frogagiriak egin, eman eta gordetzeko obligazioa.	7
I. KAPITULUA. FAKTURA EGIN BEHARRA DAKARTEN KASUAK.....	7
2. artikulua. Faktura egiteko obligazioa.	7
3. artikulua. Faktura egiteko obligazioaren salbuespenak.	9
4. artikulua. Faktura sinplifikatuak.	11
5. artikulua. Faktura egiteko obligazioa hartzaileak edo hirugarren batek betetzea.....	13
II. KAPITULUA: FAKTUREN BEHARKIZUNAK.....	14
6. artikulua. Fakturaren edukia.	14
7. artikulua. Faktura sinplifikatuaren edukia.	17
8. artikulua. Fakturak egiteko bitartekoa.	19
9. artikulua. Faktura elektronikoa.	20
10. artikulua. Faktura elektronikoaren benetakotasuna eta osotasuna.	20
11. artikulua. Fakturak egiteko epea.	20
12. artikulua. Fakturak egin eta adierazteko moneta eta hizkuntza.....	21
13. artikulua. Faktura laburtzaileak.	21
14. artikulua. Fakturen ale bikoiztuak.	22
15. artikulua. Faktura zuzentzaileak.	22
16. artikulua. Eragiketarak dokumentatzeko obligazioaren berezitasunak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregimen berezietan.	24
III. KAPITULUA. FAKTURAK BIDALTZEA.....	25
17. artikulua. Fakturak bidaltzeko obligazioa.	25
18. artikulua. Fakturak bidaltzeko epea.	25
IV. KAPITULUA. FAKTURAK ETA BESTELAKO DOKUMENTUAK GORDETZEA	26
19. artikulua. Fakturak eta bestelako dokumentuak gordetzeko obligazioa.....	26
20. artikulua. Fakturak eta bestelako dokumentuak gordetzeko erak.	27
21. artikulua. Fakturak eta bestelako dokumentuak bitarteko elektronikoen bidez gordetzea.	27
22. artikulua. Fakturak eta bestelako dokumentuak gordetzeko lekuak.....	28
23. artikulua. Zerga Administrazioa faktura eta bestelako dokumentuetara iristea.	28
V. KAPITULUA. BESTELAKO XEDAPENAK.....	28
24. artikulua. Fakturazioaren inguruko gorabeherak ebaztea.	28



II. TITULUA.....29

DOKUMENTATZEKO OBLIGAZIOAK BESTE ZERGA BATZUEN ONDORIOETARAKO ETA BESTE ESPARRU BATZUETAN29

25. artikulua. I. tituluko xedapenak aplikatzea.	29
26. artikulua. Eragiketak dokumentatzeko obligazioaren berezitasunak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan.	29
27. artikulua. Eragiketak sozietateen gaineko zergen dokumentatu beharra.	29
28. artikulua. Eragiketak ez-egoiliarren errentaren gaineko zergen dokumentatu beharra.	30
29. artikulua. Eragiketak frogagiri bidez dokumentatzeko betebeharraren erregulazioa.	30
Eragiketak frogagiri bidez dokumentatzeko betebeharra betetzeko, erregelamendu honen I. tituluan eragiketak faktura bidez dokumentatzeko betebeharrari buruz xedatutakoari jarraituko zaio, 2. eta 3. artikuluetan xedatutakoa aparte utzita.	30
Egiten diren eragiketengatik ez da egongo frogagiria egiteko obligaziorik baldin eta Ogasun Zuzendaritza Nagusiak, zenbait enpresa edo lanbide sektore edo enpresa jakin batzuei dagokionez, hala baimentzen badu enpresa edo lanbide jardueren garapenean eragozpenak saihestearren. Horri dagokionez, Ogasun Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenek baldintza bereziak ezarri ahal izango dituzte baimen bakoitzerako....	30
Eragiketak faktura bidez dokumentatzen direnean erregelamendu honen I. tituluan xedatutakoaren arabera, eragiketak frogagiri bidez dokumentatzeko betebeharra bete dela joko da.	31
XEDAPEN GEHIGARRIAK.....	31
Lehen xedapen gehigarria. Fakturatzeko obligazioak beste esparru batzuetan.	31
Bigarren xedapen gehigarria. Energia elektronikoaren entrega jakin batzuk fakturatzeko.	31
Hirugarren xedapen gehigarria. Zerbitzu prestazio jakin batzuk fakturatzeko bidaia agentziek bitartekari gisa esku hartzen dutenean beste batzuen izen eta kontura.	32
Laugarren xedapen gehigarria. Ekainaren 15eko 61/2004 Foru Dekretuari, faktura egiteko obligazioak arautzekoari, egindako erreferentziak.	35
Bosgarren xedapen gehigarria. Energiaren Batzorde Nazionalak fakturak egitea argindarra banatzen dutenen edo erregimen berezian produzitzen dutenen edo haien ordezkarien izen eta kontura.	35
Seigarrena.	36
XEDAPEN IRAGANKORRAK	36
Lehenengoa. Hirugarren batek fakturak egitea edo gordetzea komunikatzea.	36
Bigarrena. Ordezko dokumentuak fakturekin ordeztea edo trukatzeko.	37

Orain arte, 61/2004 Foru Dekretuak, ekainaren 15ekoak, arautu ditu fakturatzeko obligazioak. Foru Dekretu hori 1/1985 Foru Arau Orokorra (urtarrilaren 31koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Zergei buruzkoa) indarrean zegoela eman zen, harrezkero hainbat aldaketa izan baditu ere, azkenekoa 16/2011 Foru Dekretuak (maiatzaren 24koa, faktura egiteko obligazioei buruzko ekainaren 15eko 61/2004 Foru Dekretua eta Zerga Administrazioari informazioa emateko betebeharrei buruzko abenduaren 21eko 117/1999 Foru Dekretua aldatzen dituenak) ezarritakoa.

Balio Erantsiaren Zergaren esparruan eta fakturazioari dagokionez, gai honi buruzko Europar Batasunaren araudia Kontseiluaren 2001/115/EE Direktiba, 2001eko abenduaren 20koa, onartu zenean ezarri zen. Direktiba horrek aldatu zuen Kontseiluaren 77/388/EE Direktiba, 1977ko maiatzaren 17koa, negozio bolumenaren gaineko zergen arloko Estatu kideen legeria harmonizatzeari buruzkoa - Balio Erantsiaren Zergaren sistema erkidea: oinarri ezargarri uniformea, seigarren Direktiba. Aldaketa horien helburua fakturen jaulkipena harmonizatzea eta sinplifikatzea zen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren esparruan.



Bestalde, Kontseiluaren 2006/112/EE Direktibak, 2006ko azaroaren 28koak, balio erantsiaren gaineko zergaren sistema erkideari buruzkoak, Kontseiluaren 77/388/EEE direktiba, 1977ko maiatzaren 17koa, ordeztu zuen 2007ko urtarilaren 1etik aurrera.

Hala ere, oraindik aukera ugari eskaintzen zaizkie Europar Batasuneko Estatuiei eta, ondorioz, Estatuiek mantentzen dituzten barne araudiak direla-eta, ez da lortu Direktibarekin lortu nahi zen harmonizazioa edo elkarrengana hurbiltzea.

Europar Batasuneko estatuetak legerien arteko dibergentziak eta Direktiba hark arautzen ez zituen hutsune batzuk egoteak bultzatuta, Direktiba berri bat eman zuen Europar Batasunak: 2010/45/EB Direktiba, 2010eko uztailaren 13koa, 2006/112/EE Direktiba, balio erantsiaren gaineko zergaren sistema erkideari buruzkoa, aldatzen duena fakturazio arauari dagokionez, eta estatu kideen barne ordenamendu juridikora aldatu beharrekoa.

Azken Direktiba horren helburu nagusiak dira, barne merkatuaren funtzionamendu egokia bermatzeaz gain, subjektu pasiboen karga administratiboa arintzea, paperezko fakturak eta faktura elektronikoak berdintasunez tratatuko direla bermatzea, transakzio ekonomikoak erraztea eta agente ekonomikoen segurtasun juridikoa hobetzen laguntzea gaia erregulatzen duen araudiaren aplikazioari dagokionez.

Foru dekretu honen helburua 2010/45/EB Direktibak fakturazioari buruz egindako aldaketak gure araudian txertatzea da, esparru horretako obligazioak arautzen dituen Erregelamendu bat onartuz.

Indargabetzen den erregelamenduaren sistematika berari jarraitzen dio Erregelamenduak, eta 2010/45/EE Direktibak sartutako lege-agindu berritzaileak jaso eta garatzen ditu.

Sartzen diren berrikuntza nagusiak honakoak dira:

- Enpresari eta profesionalen segurtasun juridikoa handiagoa izan dadin, argitu egiten dira Erregelamendu horretan ezarritako fakturazio arauak aplikatu behar diren kasuak.
- Faktura jaulkitzeko obligazioari dagokion berrikuntza gisa, ezartzen da obligazio hori ez exijitzea finantza zerbitzu eta aseguru prestazio jakin batzuen kasuan, non eta ez den ulertzen eragiketa horiek zergaren aplikazio lurraldean, edo Europar Batasuneko beste estatu batean, egin direlarik salbuetsirik ez baizik eta zergapetuta daudela.
- Lehen aipatutako 2010/45/EE Direktibak ezarritako bidetik fakturazio sistema harmonizatua ezartzearen, eta enpresari txiki eta ertainen zein profesionalen funtzionamendua sustatu eta erraztearen, ezartzen den fakturazio sistemak bi faktura mota izango ditu oinarri: faktura oso edo arrunta, eta tiket deituak ordezkatzeko dituen faktura sinplifikatua.



Faktura sinplifikatuek faktura oso edo arruntek baino eduki murriztagoa dute eta, salbuespen batzuk badiren arren, jaulkitzeko obligazioa duenak berak aukeratzen duenean jaulki ahal izango dira, baldin eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga erantsita 400 eurotik gorakoak ez badira, faktura zuzentzaileak badira edo Balio Erantsiaren gaineko Zerga erantsita 3.000 eurotik gorakoak ez badira; azken kasu honetan, dena den, fakturen ordezkia jaulkitzea baimendu izan den balizkoetako bat izan behar du.

Era berean, fakturazio arloko erregulazio berriak bultzada sendoa emango dio fakturazio elektronikoari, Batasunaren Direktibak ezarritako helburua betetz eta paperezko fakturari eta faktura elektronikoari tratua bera emateko printzipioari jarraiki, kostuak murrizteko eta enpresak lehiakorragoak egiteko tresnatzat.

Definizio berriaren arabera, Erregelamenduan bertan ezarritako baldintzak betetz formatu elektronikoz jaulki eta jaso den faktura izango da faktura elektronikoa.

Horretaz gain, eta aipatutako 2010/45/EE Direktibak gogoratzen duen moduan, paperezko fakturak edo faktura elektronikoek islatu behar dute dokumentatzen dituzten eragiketen errealitatea, eta subjektu pasiboak dagokie ziurtasun hori bermatzea haien indarraldi osoan zehar. Exijentzia honek ez die inolaz ere enpresari edo profesionali karga administratibo berririk gaineratu behar.

Horrela, subjektu pasiboak bere enpresa-jarduerako edo jarduera profesionaleko ohiko kudeaketa-kontrolen bidez bermatu ahal izango du jaulkitzen edo gordetzen dituen fakturen benetakotasun, osotasun eta irakurgarritasuna.

Paperezko fakturaren eta faktura elektronikoaren arteko tratua berdintasun honek areagotu egiten ditu, horrenbestez, subjektu pasiboak bide elektronikoz fakturak jaulki ahal izateko aukerak, faktura horretarako teknologia jakin bat erabili beharrik gabe.

Dena den, dagoeneko datuen truke elektronikoa (EDI) eta sinadura elektronikoa aurreratua erabiltzen ari ziren subjektu pasiboek segurtasun juridikoa bermatzearren, Erregelamendu honek berariaz onartzen du aurrerantzean derrigorrezkoak izango ez diren teknologia horiek bermatzen dutela faktura elektronikoaren sorburuaren benetakotasuna eta edukiaren osotasuna. Era berean, eta aipatutako xedeaz, subjektu pasiboek aukera izango dute aipatutako baldintzak bermatzen dituztela deritzoten baliabideak zerga administrazioari aditzera emateko, erabiltzen hasi aurretik betiere, hala badagokio administrazioak berak balida ditzan.

Azkenean, eta 2010/45/EE Direktibak ezartzen duen harmonizazioaren ildotik, epe bat finkatzen da Batasunaren barruan zertutako ondasun entrega edo zerbitzu prestazio jakin batzuei dagozkien fakturak jaulkitzeko. Era berean, subjektu pasiboek kudeaketa administratiboa errazte aldera, egoki iritzi zaio epe hori berori aplikatzeari beste enpresari edo profesional batzuentzat egindako mugaz barneko zein mugaz gairik eragiketa guztietarako. Faktura laburtzaileei ere eragiten die epe honek.



Hortaz, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposatuta, Lege Aholkularitzako Batzordearekin bat etorriz, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren,

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Fakturatzeko obligazioak arautzen dituen Erregelamendua onartzea.

Onarturik geratzen da fakturatzeko obligazioak arautzen dituen Erregelamendua, foru dekretu honetan eranskin gisa atxiki dena.

2. artikulua. Finantza eragiketa jakin batzuk frogatzea.

1. Balore higigarrien erosketa esku hartu duen fede-emaileak egindako agiri publikoaren bidez frogatu ahal izango da, baita finantza entitateak edo, halakorik bada, inbertsio zerbitzuen enpresak egindako dokumentuaren bidez ere. Bertan eragiketaren datu guztiak jaso beharko dira.

Eskualdatu, amortizatu edo berreskuratzean atxikipena izan behar duten etekin inplizituko nahiz etekin esplizituko aktibo finantzarioak erosten badira, honako xedapenak kontuan hartuz frogatuko da haien erosketa: ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzekoa (56. artikulua), eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua, abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretuak onartua (111. artikulua).

2. Kreditu entitateek egindako eragiketen gastu eta kenkariak entitateak egindako agiri, laburpen edo kargu oharra aurkeztuz frogatu ahal izango dira. Bertan faktura batean berez jaso behar diren datuak agertuko dira, zenbakia eta seriea izan ezik.

3. artikulua. Entitate laguntzaileen operatibaren baldintzak, bidaiarien erregimenean Balio Erantsiaren gaineko Zerga itzultzeko.

Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari dagokio zehaztea zein baldintza bete beharko dituzten Ogasun Zuzendaritza Nagusiak entitate laguntzaile gisa parte hartzeko baimendutako entitateek, 102/1992 Foru Dekretuak (abenduaren 29koak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzeak) 117. artikuluan Hirugarren apartatuan aipatzen duen itzulketa prozeduran, 102/1992 Foru Dekretu beraren 21.2 artikuluan araututako bidaiarien erregimeneko zerga itzulketako prozedurari dagokionez.

XEDAPEN IRAGANKORRA. Apirilaren 21eko 43/1998 Foru Dekretuari eta ekainaren 15eko 61/2004 Foru Dekretuari jarraiki emandako baimen batzuen indarraldia.

1. Espresuki indargabetzen ez diren bitartean, honako baimenak indarrean egongo dira:



a) Apirilaren 21eko 43/1998 Foru Dekretuak, enpresari eta profesionalek fakturak egin eta emateko duten betebeharra arautzekoak, 4.1 artikuluan ezarritakoaren, eta ekainaren 15eko 61/2004 Foru Dekretuak, faktura egiteko obligazioak arautzekoak, 6. artikuluen 8. apartatuan ezarritakoaren arabera, hartzailearen datuak ez adierazteko emandako baimenak.

b) Ekainaren 15eko 61/2004 Foru Dekretuak, faktura egiteko obligazioak arautzekoak, 18. artikuluen 1. apartatuko c) letran xedatutakoaren arabera emandako baimenak, betiere baimendutako elementuak foru dekretu honek onartutako Erregelamenduaren 10. artikuluan ezarritakoa betetzen badute.

2. Apirilaren 21eko 43/1998 Foru Dekretuak, enpresari eta profesionalek faktura egin eta emateko duten betebeharra arautzekoak, 4. artikuluen 2. apartatuko n) letran ezarritakoaren arabera emandako baimenak ordezeko dokumentuak jaulkitzeko, eta ekainaren 15eko 61/2004 Foru Dekretuak, faktura egiteko obligazioak arautzekoak, 4. artikuluen 1. apartatuko n) letran xedatutakoaren arabera emandako baimenak, ulertuko da faktura sinplifikatuak jaulkitzeko baimenak direla, foru dekretu honek onartutako Erregelamenduaren 4. artikuluen 3. apartatuan xedatutakoaren arabera, eta indarrean mantenduko dira harik eta espresuki errebokatu arte.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrik gabe geratzen dira foru dekretu honetan ezarritakoarekin bat ez datozen maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak; eta, bereziki, ekainaren 15eko 61/2004 Foru Dekretua, faktura egiteko obligazioak arautzekoa.

AMAIERAKO XEDAPENA

Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

ERANSKINA

FAKTURATZEKO OBLIGAZIOAK ARAUTZEN DITUEN ERREGELAMENDUA

ATARIKO TITULUA

ERAGIKETAK DOKUMENTATZEKO OBLIGAZIOA



1. artikulua. Eragiketen frogagiriak egin, eman eta gordetzeko obligazioa.

Enpresariak edo profesionalak behartuta daude fakturak edo bestelako frogagiriak egitera eta, hala badagokio, ematera, bai eta haien kopia edo matrizea gordetzera ere, beren jardueraren enpresarial edo profesionalaren barruan egiten dituzten eragiketengatik. Era berean, behartuta daude beste enpresari edo profesionalengandik jasotako faktura edo frogagiriak gordetzera eragiketen hartzaileak beraiek direnean eta eragiketa horiek aipatutako jardueraren garapenean eginak direnean.

Orobat, enpresari edo profesionalak ez diren beste pertsona edo entitateak ere behartuta daude egiten dituzten eragiketen faktura edo bestelako frogagiriak egin eta gordetzera Erregelamendu honetan ezarritakoari jarraiki.

I. TITULUA

ERAGIKETAK DOKUMENTATZEKO OBLIGAZIOA BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN ONDORIOETARAKO

I. KAPITULUA. Faktura egin beharra dakarten kasuak

2. artikulua. Faktura egiteko obligazioa.

1. Abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzeak, 164.bat.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, enpresariak edo profesionalak beren jardueraren barruan ondasun salmenta eta zerbitzu prestazioak egiten dituztenean faktura bat eta honen kopia bat egin behar dute Erregelamendu honetan ezarritakoari jarraiki, baita zergari lotu gabeko eragiketak eta zergari lotuak baino salbuetsitakoak direnean ere. Salbuespen bakarrak Erregelamendu honetan ezarritakoak izango dira. Obligazio hori Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregimen berezietara bilduta dauden enpresari edo profesionalak ere izango dute.

Ordainketak jasotzen badira aurreko paragrafoaren arabera obligazio hau betetzea exijitzen duten ondasun salmentak edo zerbitzu prestazioak burutu baino lehen, ordainketa horiengatik ere faktura bat eta honen kopia bat egin beharko da. Abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzeak, 25. artikuluan ezarritakoagatik Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita dauden ondasun salmentak obligazio horretatik kanpo geratzen dira.



2.¹ Ondoko eragiketak egiten direnean beti egongo da faktura eta haren kopia bat egiteko obligazioa:

a) Eragiketen hartzailea enpresari edo profesionala denean eta halakotzat jarduten duenean, eragiketa egiten duen enpresaburu edo profesionalaren tributazio araubidea zeinahi dela ere, eta, orobat, hartzaileak zerga izaerako edozein eskubidez baliatzeko hala eskatzen duenean.

b) Beste estatu batera zuzendutako ondasun entregak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legeak 25. artikuluan aipatuak.

c) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legeak 68.hiru.a) eta bost artikuluan aipatzen dituen ondasun entregak, baldin eta, artikulua horretan jasotzen diren erregelen ondorioz, zergaren aplikazio lurraldean egindakotzat jotzen badira.

Dena den, entrega horiei Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legeak IX. tituluko XI. kapituluaren 3. sekzioan aipatutako araubide berezia aplikagarri zaienean eta identifikazio estatu kidea Espainia ez denean, identifikazio estatuak zehaztuko du faktura egiteko betebeharrak ote dagoen.

d) Europako Batasunetik kanpora igorri edo garraiatutako ondasun entregak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legeak 21. artikuluen 1 eta 2 zenbakietan aipatuak, artikulua horren 2.B) zenbakian aipatzen diren zergarik gabeko dendetan egindakoak izan ezik.

e) Eskura jarri aurretik instalatu edo muntatu behar diren ondasun entregak, hain zuzen ere Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legeak 68.bi.2 artikuluan aipatuak.

f) Eragiketen hartzaileak enpresaburu edo profesional gisa jarduten ez duten pertsona juridikoak direnean, zergaren aplikazio lurraldean kokatuta dauden kontuan hartu gabe, edo hartzaile horiek Herri Administrazioen Prozedura Administrazio Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 2. artikuluen 3. apartatuan jasotzen dituen herri administrazioak direnean.

3.² Aurreko apartatueta aipatutako faktura egiteko obligazioa erregelamendu honetan ezarritako arauak lotuko zaie, honako kasu hauetan:

¹ Apartatu hau uztailaren 13ko 9/2021 Foru Dekretuaren 1. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak fakturatzeko obligazioak arautzen dituen Erregelamendua eta zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jartzen da indarrean (2021/07/14ko GAO), eta 2021eko uztailaren 13tik aurrera sortzen ditu ondorioak.

² Apartatu hau uztailaren 13ko 9/2021 Foru Dekretuaren 1. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak fakturatzeko obligazioak arautzen dituen Erregelamendua eta zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jartzen da indarrean (2021/07/14ko GAO), eta 2021eko uztailaren 13tik aurrera sortzen ditu ondorioak.



a) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legeak IX. tituluko XI. kapituluan aipatutako araubide bereziak aplikagarri zaien eragiketetarako, identifikazio estatu kidea Espainia denean.

b) Aurreko a) letran adierazitakoez besteko eragiketetarako, kasu hauetan:

a') Dena delako ondasun entrega edo zerbitzu prestazioa zergaren aplikazio lurraldean egindakotzat jotzen denean, salbu eta ondasunaren hornitzailea edo zerbitzuaren emailea ez badago lurralde horretan finkatuta, zergaren subjektu pasiboa zergapetutako eragiketaren hartzailea bada eta azken horrek faktura ez badu egiten erregelamendu honetako 5. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

b') Ondasunaren hornitzailea edo zerbitzuaren emailea zergaren aplikazio lurraldean finkatuta dagoenean edo lurralde horretan establezimendu iraunkor bat edo, bestela, bere egoitza edo ohiko bizilekua duenean eta bertatik egiten duenean ondasun entrega edo zerbitzu prestazioa eta entrega edo prestazio hori, aplikatzekoak diren lokalizazio erregelen arabera, zergaren aplikazio lurraldean ez dela egin ulertzen denean, honako kasu hauetan:

1.a) Eragiketa beste estatu kide bateko zergari lotuta dagoenean, zergaren subjektu pasiboa eragiketaren hartzailea denean eta faktura ez duenean azken horrek egin materialki ondasunaren hornitzailearen edo zerbitzuaren emailearen izenean eta haren kontura.

2.a) Eragiketa Batasunetik kanpo egin dela ulertzen denean.

4. Abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuan, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzekean, 97. artikulua lehenengo apartatuko 4. zenbakian aipatzen den kontabilitateko frogagiri balioa izango du, eragiketaren kontabilitate idazpenaren euskarritzat har daitekeen edozein dokumentuk, eragiketa Batasunean establezimendurik ez duen enpresari edo profesional batek egiten duenean.

3. artikulua. Faktura egiteko obligazioaren salbuespenak.

1. Egiten diren eragiketak jarraian aipatzen direnak badira ez da faktura egiteko obligaziorik izango, Erregelamendu honen 2. artikulua 2. apartatuan jasotako kasuetan izan ezik:

a)³ Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legeak 20. artikuluan jasotakoari jarraituz zergatik salbuetsita dauden eragiketak, ondorengo 2. apartatuan aipatzen direnak izan ezik. Nolanahi ere, faktura egitea derrigorrezkoa izango da, zergaren legearen 20. Bat artikulua 2., 3., 4., 5., 15., 20., 22., 24., 25. eta 28.

³ Letra hau ekainaren 25eko 18/2019 Foru Dekretuaren 2. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua eta fakturatzeko obligazioak arautzen dituen erregelamendua aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2019/06/28ko GAO), eta 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.



zenbakietan xedatutakoari jarraituz zerga honetatik salbuetsita dauden eragiketen kasuan.

b)⁴ Baliokidetasun errekaruaren araubide berezia aplikagarri duten jardueretan ari direla, enpresaburu edo profesionalek egiten dituzten eragiketak.

Dena den, faktura egin beharko da beti, zergari lotutako eta salbuetsi gabeko higiezin-entregak egiten direnean.

c) Enpresari edo profesionalek beren jardueren barruan egindako eragiketak, jarduera horiengatik zergaren erregimen erraztura bilduta daudenean, sortutako kuoten kalkulua sarreraren bolumena kontuan hartuz egiten denean izan ezik.

Dena den, abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzekoak, 123.bat.B).3 artikuluan aipatzen dituen aktibo finkoen eskualdaketa egiten badira, beti egin beharko da faktura eskualdaketa horiengatik.

d) Faktura ez egitea baimendua duten eragiketak, Ogasun Zuzendaritza Nagusiak sektore enpresarial edo profesionali nahiz enpresa jakin batzuei dagokienez hala baimentzen duenean jarduera enpresarial edo profesionalen garapenean gorabeherak saihestearren.

2.⁵ Ez da faktura egiteko obligaziorik izango, eragiketak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legeak 20.Bat artikuluko 16. zenbakian eta 18. zenbakiko a) apartatutik n) apartatura bitartean zehaztutako zerbitzu prestazioak direnean, kasu hauetan izan ezik:

a) Aplikagarri zaizkien lokalizazio erregelen arabera, prestazio horiek zergaren aplikazio lurraldean edo Europar Batasuneko beste estatu batean egindakotzat jotzen direnean eta zergari lotuta eta ez-salbuetsita daudenean.

b) Aplikagarri zaizkien erregelen arabera, zergaren aplikazio lurraldean, Kanarietan, Ceutan edo Melillan egindakotzat jotzen direnean, zergari lotuta eta salbuetsita daudenean, eta aseguru edo kreditu entitateak ez diren enpresariak edo profesionalek lurralde horretan duten jarduera ekonomikoaren egoitza edo establezimendu iraunkorra erabiltzen egiten dituztenean, betiere enpresaburu edo profesional horiek hauetakoren bat izan gabe: aseguru entitateak, inbertsio kolektiboko erakundeak, sozietate kudeatzaileak, pentsio funtsen entitate

⁴ Letra hau abenduaren 17ko 47/2013 FORU DEKRETUaren 2. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebeharrak formal jakin batzuk eta fakturazio arlokoak garatzen dituzten erregelamenduak aldatzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean sartzen da indarrean (2015/05/29ko GAO).

⁵ Apartatu hau ekainaren 25eko 18/2019 Foru Dekretuaren 2. artikuluko hiru apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua eta fakturatzeko obligazioak arautzen dituen erregelamendua aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2019/06/28ko GAO), eta 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.



kudeatzaileak, titulizazio funtsak eta haien sozietate kudeatzaileak eta kreditu entitateak.

Ogasun Zuzendaritza Nagusiak faktura egiteko betebeharra betetzetik salbuetsi ahal izango ditu beste enpresaburu edo profesional batzuk, interesdunek aurretiaz eskatuta, betiere jarduera sektore horretako merkataritza edo administrazio jardunbideak edo faktura egiteko baldintza teknikoak direla-eta neurri hori hartzea justifikatuta badago.

Eskabidea ezetsitzat jo ahal izango da, egin denetik 6 hilabeteko epea igaro eta ebazpen espresurik jakinarazi ez bada.

3. Era berean, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza erregimen berezira bilduta dauden jardueren garapenean egindako eragiketengatik enpresari edo profesionalek ez dute faktura egiteko obligaziorik izango, Erregelamendu honen 16 artikulua 1. apartatua ezarritakoa eragotzi gabe.

Aldiz, abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzekoak, 129.bat artikulua bigarren paragrafoan aipatzen dituen ondasun higiezin salmentengatik beti egin beharko da faktura.

4. artikulua. Faktura sinplifikatuak.

1. Faktura prestatzeko obligazioa faktura sinplifikatua eta honen kopia eginez bete ahal izango da, jarraian aipatzen diren kasuetan:

a) Zenbatekoa 400 euro baino gehiagokoa ez denean, Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne, edo

b) Faktura zuzentzailea egin behar denean.

2. Aurreko apartatua xedatutakoa eragotzi gabe, enpresari edo profesionalek faktura sinplifikatua eta honen kopia egin ahal izango dute zenbatekoa 3.000 euro baino gehiagokoa ez denean, Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne, jarraian aipatzen diren eragiketak egiten direnean:

a) Txikizkako salmentak, saldutako produktuen egileek edo elaboratzaileek egindakoak ere barne.

Ondorio hauetarako, ondasun higigarri gorpuzdunen edo abereen salmentak txikizkako salmentatzat hartuko dira eragiketaren hartzailea, enpresari edo profesional moduan aritu beharrean, haien amaierako kontsumitzailea denean. Beren ezaugarri objektiboengatik, ontziraketagatik, aurkezpen edo kontserbazio egoeragatik nagusiki erabilera enpresarial edo profesionala duten ondasunak saltzen badira, salmenta horiek ez dira txikizkako salmentatzat hartuko.

b) Salmenta edo zerbitzu ibiltariak.

c) Kontsumitzailearen etxera egindako salmenta edo zerbitzuak.



- d) Pertsonen eta beren ekipaien garraioa.
- e) Ostalaritza eta jatetxe zerbitzuak, jatetxe, taberna, kafetegi, hortxata denda, txokolategi eta antzeko establezimenduek eskainiak badira, eta momentuan kontsumitzeko edari edo janarien horniketak.
- f) Dantza aretoek eta dantzalekuek eskainitako zerbitzuak.
- g) Telefono zerbitzuak, baldin eta erabilera publikoko kabina telefonikoen bidez nahiz eramailearen identifikazioa ahalbidetzen ez duten txartelen bidez eskainiak badira.
- h) Ile-apainketa zerbitzuak eta apainketa aretoek eskainitakoak.
- i) Kirol instalazioen erabilpena.
- j) Argazkien errebelatzea eta argazki-estudioek eskainitako zerbitzuak.
- k) Ibilgailuen aparkamendua.
- l) Filmen alokairua.
- m) Arropa tindatu eta garbitzeko zerbitzuak.
- n) Ordainpeko autobideen erabilpena.

3. Ogasuneko zuzendari nagusiak faktura sinplifikatuak egiteko baimena eman ahal izango du, aurreko apartatueta adierazitako kasuez bestelakoetan, delako jarduera sektoreko praktika komertzial edo administratiboek edo fakturak egiteko baldintza teknikoek oso zaila egiten dutenean Erregelamendu honen 6. artikuluan zehaztutako datu edo betekizun guztiak fakturan jaso ahal izatea.

4. Ezingo da faktura sinplifikaturik egin, honako eragiketa hauek direnean:

- a) Batasuneko beste estatu batera zuzendutako ondasun salmentak, abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzeak, 25. artikuluan aipatuak.
- b)⁶ Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legeak 68.hiru.a) artikuluan aipatzen dituen ondasun entregak, salbu eta, lege horrek IX. titularen XI. kapituluko 3. sekzioan aipatutako araubide berezia aplikagarri bazaie.
- c) Zergaren aplikazio lurraldean egindakotzat jotzen diren ondasun salmenta edo zerbitzu prestazioak, ondasunaren hornitzailea edo zerbitzu emailea lurralde

⁶ Letra hau uztailaren 13ko 9/2021 Foru Dekretuaren 1. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak fakturatzeko obligazioak arautzen dituen Erregelamendua eta zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen gaituen Erregelamendua aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jartzen da indarrean (2021/07/14ko GAO), eta 2021eko uztailaren 13tik aurrera sortzen ditu ondorioak.



horretan finkatuta ez dagoenean, zergaren subjektu pasiboa zergapeko eragiketaren hartzailea denean eta faktura azken horrek egin duenean Erregelamendu honen 5. artikuluan ezarritakoaren arabera.

d)⁷ Erregelamendu honetako 2.3.b).b') artikuluan aipatzen diren ondasun entregak edo zerbitzu prestazioak.

5. artikulua. Faktura egiteko obligazioa hartzaileak edo hirugarren batek betetzea.

1.⁸ 2. artikuluan aipatzen den obligazioa eragiketen hartzaileek edo hirugarrenek bete ahal izango dute materialki. Kasu horietako edozeinetan, enpresaburu edo profesionalak edo faktura egitera behartutako subjektu pasiboak izango du titulu honetan ezartzen diren obligazio guztiak betetzeko erantzukizuna.

Faktura egiteko obligazioa eragiketen hartzaileek edo hirugarrenek betetzea aukeratzen duten pertsona edo entitateen kasuan –zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduak, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 36. artikuluen 5. apartatua aipatutakoen kasuan– horiek zentsu aitortzen bat aurkeztu behar dute aukera hori egiten dutela eta egun jakin batetik aurrera aplikatu nahi dutela adierazteko. Orobat, haren bidez posible dute egindako aukerari uko egitea eta ukoak zein egunetatik aurrera izango dituen ondorioak adieraztea.

2. 2. artikuluan aipatzen den obligazioa eragiketen hartzaileak materialki bete ahal izan dezan, honako baldintzak bete beharko dira:

a) Beharrezkoa izango da eragiketak egiten dituen enpresari edo profesionalaren eta hartzailearen artean akordio bat egotea, eta bertan jasota egotea lehenengoak bigarrenari baimena ematen diola eragiketen fakturak egiteko. Akordio hori eragiketak egin aurretik izenpetuko da, eta bertan zehaztuta utzi beharko da zein eragiketa sartzen diren akordioan.

b) Era horretan egiten den faktura bakoitza eragiketa burutu duen enpresari edo profesionalak onartu beharko du, onarpen prozedura baten bidez. Prozedura hori alderdiek erabakitzen dutena izango da.

c) Eragiketen hartzaileak haien fakturak egiten dituenean, kopia bat igorri beharko dio eragiketak egin dituen enpresari edo profesionalari.

⁷ Letra hau uztailaren 13ko 9/2021 Foru Dekretuaren 1. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak fakturatzeko obligazioak arautzen dituen Erregelamendua eta zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jartzen da indarrean (2021/07/14ko GAO), eta 2021eko uztailaren 13tik aurrera sortzen ditu ondorioak.

⁸ Apartatu hau ekainaren 27ko 15/2017 Foru Dekretuaren 2. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua eta fakturatzeko obligazioak arautzen dituen erregelamendua aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2017/06/29ko GAO), eta 2018ko uztailaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.



d) Fakturak bertan aipatzen diren eragiketak egin dituen enpresari edo profesionalaren izenean eta kontura egingo dira.

3. Enpresari edo profesionalek edo Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek hirugarrenak kontratatuz eta fakturak egitea haien gain utziz bete ahal izango dute faktura egiteko obligazioa.

4. Eragiketen hartzailea edo fakturak egiten dituen hirugarrena ez badago Europako Batasunean kokatuta, Ogasuneko zuzendari nagusiari komunikatuta bakarrik egin ahal izango ditu hark fakturak. Salbuespena izango da hartzailea edo hirugarrena Kanarietan, Ceutan edo Melillan kokatuta dagoenean, edo kokaturik dagoen herrialdearekin elkarri laguntzeko tresna juridiko bat adostu eta bere aplikazio eremua honako xedapen hauek aurreikusitakoaren parekoa denean: Kontseiluaren 2010/24/EE Direktiba, 2010eko martxoaren 16koa, zerga, eskubide eta beste neurri jakin batzuen kredituak kobratzeko elkarri laguntza ematekoa, eta Kontseiluaren 2010/904/EE Erregelamendua, 2010eko urriaren 7koa, balio erantsiaren gaineko zergaren esparruan lankidetzat administratiboari eta iruzurrari aurka egiteari buruzkoa.

II. KAPITULUA: Fakturen beharkizunak

6. artikulua. Fakturaren edukia.

1. Faktura eta kopia guztiek jarraian aipatzen diren datu edo beharkizunak izango dituzte, beste ondorio batzuetarako nahitaezkoak gerta daitezkeenak eragotzi gabe eta bestelako aipamenik sartzeko aukera baztertu gabe:

a)⁹ Zenbakia eta, halakorik badago, seriea. Serie bereko fakturen zenbakiak korrelatiboak izan behar dira.

Fakturak bereizitako serietan egin ahal izango dira horretarako arrazoiak daudenean, eta, besteak beste, fakturak egitera behartuak establezimendu bat baino gehiago dituen eragiketak egiteko, eta beste mota bateko eragiketak egiten dituenen.

Honako fakturak, ordea, beti egin beharko dira berariazko serietan:

1. Eragiketen hartzaileek edo hirugarrenek, 5. artikuluan aipatuek, egindakoak. Horietako bakoitzarentzat, serie desberdin bat izango da.

2. Faktura zuzentzaileak.

⁹ Letra hau abenduaren 17ko 47/2013 FORU DEKRETUaren 2. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebeharrak formal jakin batzuk eta fakturazio arlokoak garatzen dituzten erregelamenduak aldatzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean sartzen da indarrean (2015/05/29ko GAO).



3. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren 1. artikulua bidez onartuak, bosgarren xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera egindakoak.

4. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legeak 84.Bat.2.g) artikuluan jasotakoaren arabera egindakoak.

5. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren 1. artikulua bidez onartuak, 61 quinquies artikulua 2. apartatua jasotakoaren arabera egindakoak.

6.¹⁰ TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamenduak, abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 17. artikuluan jasotakoaren arabera egindakoak.

b) Fakturaren data.

c) Izena eta deiturak edo sozietate izen osoa, bai faktura egitera behartutakoarenak bai eta eragiketen hartzailearenak.

d) Faktura egitera behartutakoak eragiketa egiteko erabili duen identifikazio fiskaleko zenbakia, Europar Batasuneko edozein estatutako zerga administrazio eskudunak emana.

Orobat, hartzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia ondoko kausotan ere adierazi beharko da:

1. Batasuneko beste estatu batera zuzendutako ondasun salmenta denean eta abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzeak, 25. artikuluan jasotakoaren arabera salbuetsita dagoenean.

2. Eragiketaren hartzailea eragiketa horri dagokion Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboa denean.

3. Eragiketak zergaren aplikazio lurraldean egindakotzat jotzen direnean eta faktura egitera behartutako enpresari edo profesionala lurralde horretan kokatuta dagoela ulertu behar denean.

e) Helbidea, bai faktura egitera behartutakoarena eta bai eragiketen hartzailearena.

Faktura egitera behartutakoak edo eragiketen hartzaileak negozio leku finko bat baino gehiago dituenean, jardueraren edo establezimenduaren egoitza non

¹⁰ Ordinal hau abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretuaren azken xedapenetako lehenaren bat. apartatua gehitu du. Aipatutako foru dekretuak TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamendua onesten du. Foru dekretua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jartzen da indarrean (2020/12/23ko GAO), eta 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.



dagoen kokatuta adieraziko da baldin eta datu hori eragiketa horien tributazio erregimena zehazteko garrantzizkoa bada.

f) Eragiketen deskripzioa, beren oinarri ezargarria abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzeak 78. eta 79. artikuluetan definitutako eran zehazteko beharrezkoak diren datu guztiak, eta haren zenbatekoa. Eragiketa horien zergarik gabeko prezio unitarioa ere jarriko da, bai eta prezio unitario horretan sartu gabe geratu den edozein deskontu edo beherapen ere.

g) Eragiketei aplikatutako zerga tasa edo, hala bada, zerga tasak.

h) Bidezkoa denean jasanarazten den zerga kuota, bereizita adieraziko dena.

i) Dokumentatzen diren eragiketak zein egunetan egin diren edo, bestela, ordainketa aurreratua noiz jaso den, data hori betiere faktura egiten den egunarekin bat ez badator.

j) Faktura batean dokumentatzen den eragiketa Zergatik salbuetsita dagoenean, faktura horretan erreferentzia egin beharko zaie Kontseiluaren azaroaren 28ko 2006/112/EE Direktibak balio erantsiaren gaineko zergaren sistema erkideari dagokionez ezartzen dituen xedapenei, edo abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzeak, gaiari buruz jasotzen dituen artikuluei, edo eragiketa salbuetsita dagoela adieraziko da fakturan.

Letra honetan xedatutakoa aplikatuko da, baita ere, faktura berean eragiketa bat baino gehiago dokumentatzen direnean eta aipatu diren zirkunstantziak haietako batzuei bakarrik dagozkienean.

k) Abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzeak, 25. artikuluan aipatzen dituen garraibide berrien salmentetan, fakturan adierazita utzi beharko da zeintzuk diren garraibidearen ezaugarriak, noiz jarri den lehen aldiz zerbitzuan eta saldu bitartean zein distantzia egin dituen edo zenbat nabigazio edo hegaldi ordu izan dituen.

l) Faktura salmentaren edo prestazioaren eskuratzailerak edo hartzaileak egiten duenean hornitzaileak edo zerbitzu emaileak egin beharrenean, Erregelamendu honen 5. artikuluan ezarritakoaren arabera, "hartzaileak fakturatua" aipamena.

m) Zergaren subjektu pasiboa eragiketaren eskuratzailerak edo hartzaileak denean, "subjektu pasiboaren inbertsioa" aipamena.

n) Bidaia agentzien erregimen berezia aplikatzen denean, "Bidaia agentzien erregimen berezia" aipamena.

o) Ondasun erabilien, arte-gaien, zaharkinen eta bilduma-gaien erregimen berezia aplikatzen denean, "Ondasun erabilien erregimen berezia", "Arte-gaien erregimen berezia" edo "Zaharkinen eta bilduma-gaien erregimen berezia" aipamena.



p)¹¹ Kutxa irizpidearen araubide berezia aplikatzen denean, «kutxa irizpidearen araubide berezia» aipamena.

2. Faktura berean dokumentatzen diren eragiketetako bakoitzari oinarri ezargarrian dagokion zatia honako kasuotan adierazi beharko da bereizita:

a) Dokumentatzen diren eragiketen artean, batzuk Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita daudenean, eta beste batzuk ez.

b) Eragiketetako batzuetan Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboa eragiketen hartzailea denean, eta beste batzuetan zirkunstantzia hori betetzen ez denean.

c) Fakturan sartzen diren eragiketak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren tasa bati baino gehiagori lotuta daudenean.

3.¹² Erregelamendu honetako 2.3.b).b').1. artikuluan aipatutako eragiketak direnean, faktura egitera behartutakoak aukeran izango du, artikuluko honen 1. apartatuko f), g) eta h) letretan zehaztutako informazioa jarri beharrean, zergari lotuta dagoen ondasun edo zerbitzu horien zenbatekoa adieraztea, ondasun edo zerbitzuen kopurua edo hedadura eta haien izaera aipatuta.

4. Abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzekoak, 97.bat artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, artikuluko honetan aipatutako datu eta beharkizunak betetzen dituen baina ez da fakturatzat hartuko.

7. artikulua. Faktura sinplifikatuen edukia.

1. Beste ondorio batzuetarako nahitaezkoak gerta daitezkeen datu edo beharkizunak eragotzi gabe, eta bestelako aipamenik sartzeko aukera baztertu gabe, faktura sinplifikatu eta kopia guztiek honako datu edo beharkizunak izango dituzte:

a) Zenbakia eta, hala badagokio, seriea. Serie bakoitzaren barruan faktura sinplifikatuen zenbakiak elkarren segidan joango dira.

Bidezko arrazoiak daudenean, faktura sinplifikatuak serie bereizietan egin ahal izango dira eta, besteak beste, honako kasuotan:

¹¹ Letra hau otsailaren 4ko 2/2014 FORU DEKRETUAREN artikuluko bakarreko bi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak fakturatzeko obligazioak arautzen dituen Erregelamendua, 2013ko otsailaren 26ko 8/2013 Foru Dekretuak onartutakoa, aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean (2014/02/11ko GAO) eta 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.

¹² Apartatu hau uztailaren 13ko 9/2021 Foru Dekretuaren 1. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak fakturatzeko obligazioak arautzen dituen Erregelamendua eta zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jartzen da indarrean (2021/07/14ko GAO), eta 2021eko uztailaren 13tik aurrera sortzen ditu ondorioak.



1. Faktura egitera behartutakoak eragiketak egiteko establezimendu bat baino gehiago dituenen.

2. Faktura egitera behartutakoak izaera desberdineko eragiketak egiten dituenen.

3. Erregelamendu honen 5. artikuluan aipatzen diren eragiketen hartzaileek edo hirugarrenek egindakoak. Horietako bakoitzerako serie bana egongo da.

4. Zuzentzaileak.

Enpresari edo profesionalak artikuluko honen araberrako fakturak eta 6. artikuluko araberrako fakturak egiten dituenen urte natural bereko eragiketak dokumentatzeko, batzuk eta besteak serie bereizietan egin beharko ditu.

b) Fakturaren data.

c) Dokumentatzen diren eragiketak zein egunetan egin diren edo, bestela, ordainketa aurreratua noiz jaso den, data hori faktura egiten den egunarekin bat ez badator.

d) Faktura sinplifikatua egitera behartutakoaren identifikazio fiskaleko zenbakia eta, orobat, izen-deiturak edo sozietate izen osoa.

e) Saldutako ondasunen edo emandako zerbitzuen identifikazioa.

f) Aplikatutako zerga tasa eta, aukeran, «BEZa barne» adierazpena ere bai.

Era berean, faktura berean Balio Erantsiaren gaineko Zerga tasa desberdinei lotutako eragiketak sartzen direnean, bereizita adierazi beharko da, gainera, eragiketa bakoitzaren oinarri ezargarria.

g) Kontraprestazio osoa.

h) Faktura zuzentzaileak direnenean, zuzentzen den hasierako fakturaren erreferentzia zehatza eta argia, eta aldatzen diren xehetasunen azalpena.

i)¹³ Erregelamendu honen 6.1 artikuluko j)tik p)ra bitarteko letretan zehazten diren kasuetan, bertan adierazitako aipamenak egin beharko dira.

2. Abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzekoak, 97.bat artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, eragiketen hartzailea enpresari edo profesionala denean eta hala eskatzen

¹³ Letra hau otsailaren 4ko 2/2014 FORU DEKRETUaren artikuluko bakarreko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak fakturatzeko obligazioak arautzen dituen Erregelamendua, 2013ko otsailaren 26ko 8/2013 Foru Dekretuak onartutakoa, aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean (2014/02/11ko GAO) eta 2014ko urtarilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.



duenean, faktura sinplifikatua egiten duenak beste datu hauek ere adierazi beharko ditu:

a) Identifikazio fiskaleko zenbakia, Europar Batasuneko estatu bateko zerga administrazio eskudunak emana, eta eragiketen hartzailearen helbidea.

b) Zerga jasanarazten denean, jasanarazitako zerga kuota. Bereizita adieraziko da.

3. Aurreko apartatuan azaldutako datuak jaso beharko dira baita ere, eragiketaren hartzailea enpresari edo profesionala ez denean eta hala eskatzen duenean zerga izaerako edozein eskubidez baliatzeko.

4. Ogasuneko zuzendari nagusiak uste badu, delako jarduera sektorearen jarduketa komertzial edo administratiboak edo fakturak egiteko baldintza teknikoak kontuan izanda, komeni dela aurreko apartatuetan adierazitakoak baino aipamen gehiago edo gutxiago jasoaraztea, ahalmena izango du:

a) Aurreko apartatuetan adierazitakoak baino aipamen gehiago sartzea exijitzeko, baina inola ere ezingo du exijitu Erregelamendu honen 6. artikuluan zehaztutakoa baino informazio gehiago.

b) Faktura sinplifikatuetan artikulua honen 1. apartatuko a), c), f), g) eta i) letretan eta 2. apartatuan zehaztutako aipamenak ez sartzeko baimena emateko, baldin eta, 1. apartatuko f) edo g) letretan azaldutako datuak omititzen direnean, zerga kuota edo kuota hori kalkulatzeko datuak adierazten badira.

Apartatu honetan aipatzen diren erabakiei behar den publizitatea eman beharko die Ogasun Zuzendaritza Nagusiak.

8. artikulua. Fakturak egiteko bitartekoa.

1. Fakturak edozein bitartekotan egin ahal izango dira, paperean nahiz formatu elektronikoan, baldin eta faktura egin behar duenak bermatzen badu jatorriaren benetakotasuna, edukiaren osotasuna eta irakurgarritasuna, fakturaren jaulkitze datatik hasita, gordetzeko obligazioa dagoen epealdi osorako.

2. Faktura paperezko nahiz elektronikoaren jatorriaren benetakotasunak, faktura egitera behartutakoaren identitatea eta faktura egin duenarena bermatuko ditu.

Faktura paperezko nahiz elektronikoaren edukiaren osotasunak, eduki hori ez dela aldatua izan bermatuko du.

3. Faktura paperezko nahiz elektronikoaren jatorriaren benetakotasuna eta edukiaren osotasuna, zuzenbidean onartutako edozein frogabidez egiaztatu ahal izango dira.

Bereziki, fakturaren jatorriaren benetakotasuna eta edukiaren osotasuna, subjektu pasiboaren jarduera enpresarial edo profesionalaren kudeaketako kontrolen bitartez bermatu ahal izango dira.



Kudeaketako kontrol horiek aukera eman beharko dute, fakturaren eta fakturan dokumentatzen den ondasun salmenta edo zerbitzu prestazioaren arteko lotura ezarriko duen auditoriako aztarna fidagarri bat sortzeko.

9. artikulua. Faktura elektronikoa.

1. Faktura elektronikotzat joko da Erregelamendu honetan ezarritakoa betetzen duen eta formatu elektronikoa egin eta hartu den faktura oro.
2. Faktura elektronikoa egin ahal izateko, hartzaileak adostasuna eman behar du.

10. artikulua. Faktura elektronikoaren benetakotasuna eta osotasuna.

1. Faktura elektronikoaren jatorriaren benetakotasuna eta edukiaren osotasuna, 8. artikuluan zehaztutako edozein bitartekoren bidez bermatu ahal izango dira.

Bereziki, faktura elektronikoaren jatorriaren benetakotasuna eta edukiaren osotasuna bermatzeko, frogabide hauetakoren bat erabili ahal izango da:

a) Sinadura elektronikoa aurreratua, Europako Parlamentuaren eta bertako Kontseiluaren 1999ko abenduaren 13ko 1999/93/EE Direktibak, sinadura elektronikorako araubide komunitarioa ezartzen duenak, 2.2 artikuluan xedatutakoa beteko duena. Sinadura elektronikoa hori izango da ziurtagiri onartu batean oinarritua eta sinadurak sortzeko sistema seguru baten bidez eratua, aipaturiko direktibak 2. artikuluen 6 eta 10 apartatuetan jasotakoaren arabera, edo ziurtagiri onartu batean oinarritua, direktiba beraren 2. artikuluen 10. apartatutan xedatutakoaren arabera.

b) Datuen truke elektronikoa (EDI), Europako Batzordearen 94/820/EE Gomendioak, 1994ko urriaren 19koak, datuen truke elektronikoen alderdi juridikoei buruzkoak, I. eranskinaren 2. artikuluan definitzen duen eran, baldin eta trukeari buruzko akordioan jasota badago jatorriaren benetakotasuna eta edukiaren osotasuna bermatzeko prozedurak erabiliko direla.

c) Erabiltzen hasi aurretik interesatuek Ogasun Zuzendaritza Nagusiari ezagutarazi eta hark baliozkotzat jotako beste edozein bitarteko.

2. Hartzaile bati faktura elektronikoa multzo bat lote bakarrean bidaltzen bazaio, faktura guztiei dagozkien xehetasunak behin bakarrik aipatu ahal izango dira, baldin eta faktura bakoitzetik informazio osoa eskuratzeko aukera ematen bada.

11. artikulua. Fakturak egiteko epea.

1. Fakturak eragiketa egiten den unean egin beharko dira.

Dena den, eragiketaren hartzailea enpresari edo profesionala denean eta halakotzat jarduten duenean, eragiketari dagokion zerga sortzen den hilaren hurrengo hilaren 16a baino lehenago egin beharko da faktura.



2. Abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuan, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzeoan, 75.bat.8. artikuluan aipatutako ondasun salmentak direnean, ondasunak erosleari helarazteko bidalketa edo garraioa hasten den hilaren hurrengo hilaren 16a baino lehenago egin beharko dira fakturak.

3.¹⁴ Eragiketak egiten badira zergaren legeak IX. tituluko X. kapituluaren araututako kutxa irizpidearen araubide berezia aplikatuta, faktura egingo da eragiketa horiek gauzatzen diren momentuan, salbu eta eragiketaren hartzailea enpresari edo profesionala denean eta halakotzat jarduten duenean. Horrelakoetan, eragiketa egin den hilabetea amaitu ondorengo hilaren 16a baino lehen egin beharko da faktura.

12. artikulua. Fakturak egin eta adierazteko moneta eta hizkuntza.

1. Fakturretan azaltzen diren zenbatekoak edozein monetatan adierazi ahal izango dira, baina zerga jasanarazten bada, jasanarazitako zenbatekoa eurotan adierazi behar da, abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzeoak, 79.hamaika artikuluan aipatzen duen kanbio tasa aplikatuz.

2. Fakturak edozein hizkuntzatan egin daitezke. Dena den, Zerga Administrazioak, enpresari edo profesionalaren edo subjektu pasiboaren zerga egoera egiaztatze beharrezko deritzonenean, eskatu ahal izango du Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aplikazio lurraldean egindako eragiketen fakturak nahiz lurralde horretan establezimendua duten enpresari edo profesionalak edo subjektu pasiboak jasotakoak Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako batera itzultzeko bertako hizkuntza ez-ofizial batean eginak direnean.

13. artikulua. Faktura laburtzaileak.

1. Hartzaile berberarentzat data desberdinetan egindako eragiketak faktura bakar batean jaso ahal izango dira hilabete natural berean eginak izan badira.

2. Faktura horiek egiteko epea, bertan dokumentatzen diren eragiketak egin diren hilabete naturalaren azken egunean amaituko da. Hala ere, fakturen hartzailea enpresari edo profesionala denean eta halakotzat jarduten duenean, eragiketak egin diren hilaren hurrengo hilaren 16aren aurretik egin beharko dira.

3. Abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuan, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzeoan, 75.bat.8. artikuluan aipatutako ondasun salmentak direnean, ondasunak erosleari helarazteko bidalketa edo garraioa hasten den hilaren hurrengo hilaren 16a baino lehen egin beharko dira fakturak.

¹⁴ Apartatu hau otsailaren 4ko 2/2014 FORU DEKRETUAREN artikulua bakarreko lau apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak fakturatzeko obligazioak arautzen dituen Erregelamendua, 2013ko otsailaren 26ko 8/2013 Foru Dekretuak onartutakoa, aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean (2014/02/11ko GAO) eta 2014ko urtarilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.



14. artikulua. Fakturen ale bikoiztuak.

1. Enpresari eta profesionalek edo subjektu pasiboek fakturaren jatorrizko dokumentu bakarra baino ezin dute egin.
2. Honako kasuetan bakarrik onartuko da fakturen jatorrizko dokumentuen ale bikoiztuak egitea:
 - a) Ondasun salmenta edo zerbitzu prestazio batean hartzaile bat baino gehiago dagoenean. Horrelakoetan, bai jatorrizko dokumentuan eta bai ale bikoiztuetan horietako bakoitzari dagokion oinarri ezargarria eta jasanarazi zaion kuota adieraziko dira.
 - b) Jatorrizko agiria edozein arrazoi dela medio galdu denean.
 - c)¹⁵ TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamenduak, abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 17. artikuluan aipatzen dituen kasuetan.
3. Aurreko apartatuan aipatu diren ale bikoiztuek jatorrizko agirien eragin bera izango dute.
4. Ale bikoiztu bakoitzean «bikoiztua» espresioa jarriko da.

15. artikulua. Faktura zuzentzaileak.

1. Faktura zuzentzailea egin beharko da jatorrizko fakturak betetzen ez duenean 6. edo 7. artikuluetan ezarritako baldintzetakoren bat, artikulua honen 6. apartatuan ezarritakoa eragotzi gabe.
2. Faktura zuzentzailea egin beharko da, baita ere, jasanarazitako zerga kuotak gaizki kalkulatu direnean edo abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzeak, 80. artikuluan jasotakoaren arabera oinarri ezargarria aldatzea beharrezkoa egiten duten zirkunstantziak gertatu direnean.

Dena den, oinarri ezargarria aldatu bada hartzaile berberarentzat gero egindako horniketa batean merkantziak edo ontziki eta bilgarriak itzuli direlako, eta horiek emateko eragiketarik lehendik faktura egin bada, ez da beharrezkoa izango faktura zuzentzailerik egitea. Zuzenketa horniketa horregatik egiten den fakturan egin ahal izango da itzulitako merkantzien eta ontziki nahiz bilgarrien zenbatekoa geroko eragiketaren zenbatekotik kenduz. Zuzenketa horrela egin ahal izango da, baldin eta eragiketa guztiei zerga tasa bera aplikatu behar bazaie, emaitza positiboa nahiz negatiboa izan.

¹⁵ Letra hau abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretuaren azken xedapenetako lehenaren bi. apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamendua onesten du. Foru dekretua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jartzen da indarrean (2020/12/23ko GAO), eta 2022ko urtarilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.



3. Aurreko apartatuen arabera faktura zuzentzaileak egitera behartzen duten zirkunstantzien berri izan bezain laster egin beharko ditu, obligazio hori duenak, faktura zuzentzaileak, beti ere zergaren sortzapenetik lau urte igaro ez badira edo, bestela, abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzekoak, 80. artikuluan aipatzen dituen zirkunstantziak gertatzen badira.

4. Zuzenketa beste faktura baten bidez egingo da, eta bertan hasierako fakturaren identifikazio datuak eta egindako zuzenketa jasoko dira. Agiri zuzentzaile bakar batean faktura bat baino gehiago zuzendu daitezke, baldin eta zuzentzen diren faktura guztiak behar bezala identifikatzen badira. Hala ere, oinarri ezargarria eragiketa bolumenagatik egindako deskontu edo hobarien ondorioz aldatzen denean, eta Ogasuneko zuzendari nagusiak baimentzen dituen gainerako kasuetan, ez da beharrezkoa izango zuzendutako fakturak identifikatzea, eta dagokien epealdia adieraztea nahikoa izango da.

¹⁶Ogasuneko zuzendari nagusiak fakturak zuzentzeko beste prozedura batzuk baimendu ahal izango ditu, per-tso-na edo entitate interesdunek aurrez eskatuta, kasuan kasuko jarduera sektoreko praktika komertzial edo administratiboek hala justifikatzen badute.

5. Faktura zuzentzaileak 6. edo 7. artikuluan ezarritako beharkizunak bete beharko ditu, kasu bakoitzean dagokionaren arabera.

Egiten dena faktura zuzentzailea denean, 6.1 artikuluan f), g) eta h) letretan aipatzen diren datuek egindako zuzenketa adieraziko dute. Bereziki, 6.1 artikuluan f) eta h) paragrafoetan arautzen diren datuak eman ahal izango dira bai zuzenketaren zenbatekoa zuzenean adieraziz, zeinua edozein dela ere, bai zuzenketaren ondoren datuak nola geratzen diren azalduz. Azken kasu honetan ere zuzenketaren zenbatekoa adieraziko da.

Egiten dena faktura sinplifikatu zuzentzailea denean, 7.1 artikuluan f) eta g) letretan eta, hala dagokionean, 7.2.b) artikuluan, aipatzen diren datuek egindako zuzenketa erakutsiko dute dela zuzenketaren zenbatekoa zuzenean adieraziz, dela zuzenketaren ondoren datuak nola geratzen diren azalduz. Azken kasu honetan ere zuzenketaren zenbatekoa adieraziko da.

6. 1 eta 2 apartatuetan jasotako arrazoiengatik egiten direnak baino ez dira hartuko faktura zuzentzailatzat.

Dena den, lehenago egindako faktura sinplifikatuak ordeztzeko edo trukatzeko egiten diren fakturak ez dira zuzentzailatzat hartuko, baldin eta bere garaian egindako faktura sinplifikatuek 7.1 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

¹⁶ Paragrafo hau urriaren 30eko 27/2018 FORU DEKRETUAren 2.artikuluko bat apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua eta fakturatzeko obligazioak arautzen dituen erregelamendua aldatzen ditu (2018/11/07ko GAO). Aldaketa honetan xedatutakoa 2018ko urtarilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.



16. artikulua. Eragiketak dokumentatzeko obligazioaren berezitasunak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregimen berezietan.

1. Enpresari edo profesionalek nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza erregimen berezian dauden pertsonen ondasun edo zerbitzuak erostean konpentsazioak itzuli behar badituzte abenduaren 29ko 102/1002 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzekoak, 131.2 artikuluan jasotakoaren arabera, ordainagiri bat egin beharko dute eragiketa horiengatik, eta bertan honako datu edo beharkizunak adierazi:

a) Seriea eta zenbakia. Serie bakoitzaren barruan ordainagiriaren zenbakiak elkarren segidan joango dira.

b)¹⁷ Faktura egin behar duenaren izen-abizenak, sozietate izen osoa, identifikazio fiskaleko zenbakia eta helbidea, eta nekazaritza, abeltzaintza, baso edo arrantza ustiatzeko titularrarenak, titular hori nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide berezian dagoela adierazita.

c) Saldutako ondasunen edo emandako zerbitzuen deskribapena, eta eragiketak benetan gauzatu diren lekua eta data.

d) Ondasun edo zerbitzuen salneurria, abenduaren 29ko 130/1992 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legea egokitzen duenak, 130.bost artikuluan xedatutakoaren arabera zehaztua.

e) Aplikatutako konpentsazio portzentajea.

f) Konpentsazioaren zenbatekoa.

g) Nekazaritza, abeltzaintza, baso edo arrantza ustialekuko titularraren sinadura.

Enpresari edo profesional hauek ordainagiriaren kopia bat eman beharko diote ondasun edo zerbitzuen hornitzaileari, hau da, nekazaritza, abeltzaintza, baso edo arrantza ustialekuaren titularrari.

Erregelamendu honetan fakturei buruz jasotzen diren gainerako xedapenak apartatu honek aipatzen dituen ordainagiriei ere aplikatuko zaizkie, bidezkoa gertatzen den neurrian.

2. Titulu honetan ezarritako gainerako obligazioak betetzearen kaltetan gabe, ondasun erabilien, arte-gaien, zaharkinen eta bilduma-gaien erregimen berezia aplikatzen duten subjektu pasiboek berariazko betebeharrak hauek izango dituzte aipatutako erregimen bereziak eragindako eragiketei dagokienez:

¹⁷ Letra hau abenduaren 17ko 47/2013 FORU DEKRETUaren 2. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebeharrak formal jakin batzuk eta fakturazio arlokoak garatzen dituzten erregelamenduak aldatzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean sartzen da indarrean (2015/05/29ko GAO).



a) Agiri bat egitea enpresari edo profesionalak izan gabe halakotzat jardun dutenei egindako erosketak justifikatzeko. Erosketa agiri hori saltzaileak sinatu beharko du eta 6.1 artikuluan aipatzen diren datu eta beharkizunak jasoko ditu.

b) Nolanahi ere, subjektu pasibo birsaltzaileek egiten dituzten salmentak erregimen berezira bilduta daudenean, haien fakturetan 6.1.o) edo 7.1.i) artikuluan adierazitako aipamena jaso beharko da.

c) Subjektu pasibo birsaltzaileek erregimen berezira bildutako salmentengatik egiten dituzten fakturetan Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuota jasanarazia ezingo da bereizita adierazi, eta kuota hori eragiketaren prezio osoaren barruan sartuta dagoela ulertuko da.

3.¹⁸ Bidaia-agentzien araubide berezia aplikagarri duten eragiketetan, subjektu pasiboek ez dute zertan bereizita adierazi jasanarazitako kuota fakturan, eta eragiketaren prezioan zerga sartuta dagoela ulertuko da.

Araubide berezi hau aplikagarri duten eragiketak dokumentatzen dituzten fakturetan beti adierazi beharko da Erregelamendu honen 6.1.n) edo 7.1.i) artikuluetan jasotzen den aipamena.

4. Enpresari edo profesionalak ondasunak saltzean baliokidetasun errekarua jasanarazi behar badute, faktura desberdinak egingo dituzte salmenta horiek dokumentatzeko, aplikatu den errekaru tasa eta zenbatekoa bertan adieraziz.

Gertatzen bada baliokidetasun errekaruaren erregimen berezian dauden txikizkako merkatariek aldi berean jarduera enpresarial edo profesionalak egiten dituztela jarduera enpresarial edo profesionalaren beste sektore batzuetan, erregimen horretan sartuta dauden jardueretarako erositako salgaiak eta gainerako jardueretarako erositakoak faktura desberdinetan dokumentatu beharko dituzte.

III. KAPITULUA. Fakturak bidaltzea

17. artikulua. Fakturak bidaltzeko obligazioa.

Fakturak egitera behartutakoak edo haren izenean diharduenak, I. tituluaren I. eta II. kapituluetan xedatutakoari jarraiki egindako fakturen jatorrizko dokumentuak bidali behar dizkie bertan dokumentatzen diren eragiketen hartzaileei.

18. artikulua. Fakturak bidaltzeko epea.¹⁹

¹⁸ Letra hau abenduaren 17ko 47/2013 FORU DEKRETUaren 2. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebeharrak formal jakin batzuk eta fakturazio arlokoak garatzen dituzten erregelamenduak aldatzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean sartzen da indarrean (2015/05/29ko GAO).



Fakturak igortzeko obligazioa, 17. artikuluan ezarritakoa, haiek egiten diren une berean bete beharko da. Alabaina, hartzailea enpresaburu edo profesionala bada eta izaera horrekin jarduten badu, obligazio hori beteko da eragiketari dagokion zerga sortu eta hurrengo hilaren 16a baino lehen, edo, kutxako irizpidearen araubide berezira bilduta dauden eragiketen kasuan edo faktura zuzentzaileen kasuan, eragiketa gauzatu edo faktura egin den hilabetea amaitu eta hurrengo hilaren 16a baino lehen, hurrenez hurren.

IV. KAPITULUA. Fakturak eta bestelako dokumentuak gordetzea

19. artikulua. Fakturak eta bestelako dokumentuak gordetzeko obligazioa.

1. Enpresari edo profesionalek honako agiriak gorde beharko dituzte Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen 2/2005 Foru Arau Orokorrak, martxoaren 8koak, ezartzen duen epean:

a) Jasotako fakturak.

b) 2. artikuluen 1 eta 2 apartatuen arabera egindako fakturen kopiak edo matrizeak

c) Abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzeak, 97. artikuluen bat apartatuko 4. zenbakian zehaztutako kontabilitate frogagiriak.

d) 16. artikuluen 1 apartatuak aipatzen dituen ordainagiriak. Dokumentu hau egiten duenak jatorrizko dokumentua gorde beharko du, eta ustialekuen titularrak haren kopia.

e) Abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzeak, 97. artikuluen bat apartatuko 3. zenbakian zehaztutako agiriak.

Obligazio hori bera izango dute, baita ere, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregimen berezietara bildutako enpresari edo profesionalek, eta enpresari edo profesionalak izan gabe zergaren subjektu pasibo direnek, nahiz eta kasu honetan obligazioa a) eta c) letretan aipatu diren dokumentuei dagokienez bakarrik aplikatuko den.

¹⁹ Artikulu hau urriaren 30eko 27/2018 FORU DEKRETUaren 2.artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua eta fakturatzeko obligazioak arautzen dituen erregelamendua aldatzen ditu (2018/11/07ko GAO). Aldaketa honetan xedatutakoa 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.



2. Agiriak beren jatorrizko edukiarekin gorde beharko dira, ordenaturik eta Erregelamendu honetan ezarritako epe eta baldintzekin.

3. Aurreko apartatuan aipatu diren obligazioak hirugarren batek ere bete ahal izango ditu materialki. Hirugarren hori enpresari edo profesionalaren edo subjektu pasiboaren izen eta kontura arituko da beti, nahiz eta kasu guztietan azken hau izango den kapitulu honetan ezartzen diren obligazioak betetzearen erantzulea.

4. Hirugarren hori ez badago Europako Batasunean kokatuta, Ogasuneko zuzendari nagusiak aurrez jakinarazita bakarrik bete ahal izango da obligazio hau hirugarren baten bidez. Salbuespena izango da hirugarrena Kanarietan, Ceutan edo Melillan kokatuta dagoenean, edo kokaturik dagoen herrialdearekin elkarri laguntzeko tresna juridiko bat adostu denean eta bere aplikazio eremua honako xedapen hauek aurreikusitakoaren parekoa denean: Kontseiluaren 2010/24/EB Direktiba, 2010eko martxoaren 16koa, zerga, eskubide eta beste neurri jakin batzuen kredituak kobratzeko elkarri laguntza ematekoa, eta Kontseiluaren 904/2010/EE Erregelamendua, 2010eko urriaren 7koa, balio erantsiaren gaineko zergaren esparruan lankidetza administratiboa arautzekoa eta iruzurrari aurka egitekoa.

20. artikulua. Fakturak eta bestelako dokumentuak gordetzeko erak.

1. 19. artikuluan aipatzen diren agiriak, paperezkoak nahiz formatu elektronikokoak, Erregelamendu honen 8. artikuluan jatorriaren benetakotasunari, edukiaren osotasunari eta irakurgarritasunari buruz ezarritako beharkizunak betetzen direla segurtatzeko moduan eta zerga Administrazioa erraz eta berehala iristeko moduan gordeko dira, behar bezala justifikatutako arrazoiak daudenean izan ezik.

2. Bereziki, bitarteko elektronikoak erabiliz bete ahal izango da obligazio hori. Ondorio horietarako, baliabide elektronikoen bidez gordetzea honako hau dela joko da: informazioa tratamenduko ekipo elektronikoen bitartez gordetzea, konpresio numerikoa eta datuen biltegiratzea barne, bitarteko optikoak edo bestelako baliabide magnetikoak erabiliz.

21. artikulua. Fakturak eta bestelako dokumentuak bitarteko elektronikoen bidez gordetzea.

1. 20. artikuluan aipatzen diren agiriak bitarteko elektronikoak gordetzeak ziurtatu beharko du bidali edo jaso diren formatuan irakur daitezkeela. Jatorriaren benetakotasuna eta edukiaren osotasuna bermatzen duten datu elkartuak, sinadura egiaztatzeko mekanismoak edo baimentzen diren bestelako elementuak egonez gero, arazorik gabe irakurriko direla ere ziurtatu beharko du.

Zerga Administrazioak edozein unetan eskatu ahal izango dio agiriak bidali edo jasotzen dituenari lengoaia irakurgarri batera alda ditzala.



2. Agiriak bitarteko elektronikoen bidez gorde eta kudeatzen direnean, Zerga Administrazioari bermatu beharko zaio ezen, bere edozein eskaeraren aurrean, eta atzeratzeko arrazoirik ez badago behintzat, berehala izango duela datuetarako on line sarbidea, eta datuak urrutitik kargatu eta erabili ahal izango dituela.

Datuak bistaratzea, modu hautatuan bilatzea, on line kopia edo jaistea, eta horiek inprimatzea ahalbidetzen duena joko da sarbide osotzat.

22. artikulua. Fakturak eta bestelako dokumentuak gordetzeko lekuak.

1. Kapitulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, enpresari edo profesionalak edo fakturak eta bestelako dokumentuak gordetzera behartutako subjektu pasiboak ahalmena izango du obligazio hori non bete erabakitzeke, baldin eta gorde duen dokumentazio edo informazio guztia bere egoera tributarioa egiaztatzen ari den zerga Administrazioaren organo eskudunari ematen badiot. Informazio hori organo horrek hala eskatzen duen guztietan eta berehala eman beharko zaio, atzeratzeko arrazoirik ez badago behintzat.

2. Agiriak Espainiatik kanpo gordetzen direnean, obligazio hori balio osoz bete dela ulertuko da baldin eta bitarteko elektronikoen erabiltzean horiek Zerga Administrazioari bermatzen badiote gordetako dokumentazio edo informaziorako on line sarbidea duela eta datuak urrutitik kargatu eta erabili ditzakeela.

Enpresari edo profesionalak edo subjektu pasiboek lurralde horretatik kanpo bete nahi badute obligazio hori, Zerga Administrazioari jakinarazi beharko diote aldez aurretik.

23. artikulua. Zerga Administrazioa faktura eta bestelako dokumentuetara iristea.

19. artikuluan aipatu den gordetzeko obligazioa bitarteko elektronikoen erabiliz betetzen denean, enpresari edo profesionalaren nahiz subjektu pasiboaren egoera tributarioa egiaztatzen ari den zerga Administrazioaren edozein organori bermatu behar zaio gordetako dokumentuetarako on line sarbidea izango duela eta dokumentu horiek urrutitik kargatu eta erabili ahal izango dituela. Obligazio hori bete beharrekoa da dokumentuak nonahi gordetzen direla ere.

V. KAPITULUA. Bestelako xedapenak

24. artikulua. Fakturazioaren inguruko gorabeherak ebaztea.

Erregelamendu honetan aipatutako fakturak eta gainerako dokumentuak egin, zuzendu edo bidaltzean gerta daitezkeen gorabeherak zerga izaerako zuzenbidezko gertaera edo auziengatik sortzen direnean, izaera horretakoak direla ulertuko da erreklamazio ekonomiko administratiboa aurkeztearen ondorioetarako.



II. TITULUA

DOKUMENTATZEKO OBLIGAZIOAK BESTE ZERGA BATZUEN ONDORIOETARAKO ETA BESTE ESPARRU BATZUETAN

25. artikulua. I. tituluko xedapenak aplikatzea.²⁰

I. tituluaren jasotzen diren xedapenak beste edozein zerga, dirulaguntza edo laguntza publikori dagokionez ere izango dira aplikagarri, haien araudian eta titulu honetan jasotako arauetan ezarritakoa eragotzi gabe.

26. artikulua. Eragiketak dokumentatzeko obligazioaren berezitasunak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan.

1.²¹ Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek behartuta egongo dira, baldin eta jarduera ekonomikoen etekinak lortzen badituzte, beren jardueraren barruan egindako eragiketen faktura eta haren kopia egitera, erregelamendu honetan ezarritakoari jarraituz, balio erantsiaren gaineko zergan aplikatzen duten erregimena zeinahi dela ere.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak eta errenta esleipeneko entitateak behartuta egongo dira, baldin eta jarduera ekonomikoen etekinak lortzen badituzte, erregelamendu honetako 1. artikuluan ezarritakoari jarraituz, erregelamendu honetako 3.1 artikulua a) eta d) letretan jasotakoaren arabera fakturarik behar ez duten eragiketen egiaztatzea eta haren kopia egitera.

2. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza erregimenera bildutako jardueren barruan egindako eragiketaren hartzailerak 16.1 artikuluan aipatzen den ordainagiria egiten duenean, aurreko apartatuan ezarritako obligazioak betetzen direla joko da.

27. artikulua. Eragiketak sozietateen gaineko zergan dokumentatu beharra²².

²⁰ Artikulu hau urriaren 5eko 12/2021 Foru Dekretuaren 5. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Zergen Foru Arau Orokorra garatzeko erregelamendu jakin batzuk aldatzen ditu (2021/10/8ko GAO). Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean eta aldaketak 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

²¹ Apartatu hau urriaren 5eko 12/2021 Foru Dekretuaren 5. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Zergen Foru Arau Orokorra garatzeko erregelamendu jakin batzuk aldatzen ditu (2021/10/8ko GAO). Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean eta aldaketak 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

²² Artikulu hau abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretuaren azken xedapenetako lehenaren lau. apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamendua onesten du. Foru dekretua



Zerga honen zergadunak behartuta egongo dira, erregelamendu honetako 1. artikuluan jasotakoarekin bat, frogagiria eta kopia egitera, eragiketengatik fakturarik egin behar ez denean erregelamendu honen 3.1 artikuluko a) eta d) letretan aurreikusitakoaren arabera.

28. artikulua. Eragiketak ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan dokumentatu beharra²³.

Establezimendu iraunkor bidez errentak lortzen dituzten zergadunak behartuta egongo dira:

a) Beren jardueran egiten dituzten eragiketen faktura eta kopia egitera, erregelamendu honetan aurreikusitako eran, balio erantsiaren gaineko zergan aplikatzen duten araubidea edozein dela ere.

Aurreko paragrafoan ezarritako beharkizuna betetzat joko da balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezira bildutako jardueren garapenean egindako eragiketaren hartzaileak 16.1 artikuluan aurreikusitako ordainagiria egiten duenean.

b) Frogagiria eta kopia egitera, erregelamendu honetako 1. artikuluan jasotakoarekin bat, eragiketengatik fakturarik egin behar ez denean erregelamendu honen 3.1 artikuluko a) eta d) letretan aurreikusitakoaren arabera.

29. artikulua. Eragiketak frogagiri bidez dokumentatzeko betebeharraren erregulazioa²⁴.

Eragiketak frogagiri bidez dokumentatzeko betebeharra betetzeko, erregelamendu honen 1. tituluaren eragiketak faktura bidez dokumentatzeko betebeharrari buruz xedatutakoari jarraituko zaio, 2. eta 3. artikuluetan xedatutakoa aparte utzita.

Egiten diren eragiketengatik ez da egongo frogagiria egiteko obligaziorik baldin eta Ogasun Zuzendaritza Nagusiak, zenbait enpresa edo lanbide sektore edo enpresa jakin batzuei dagokienez, hala baimentzen badu enpresa edo lanbide jardueren

Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jartzen da indarrean (2020/12/23ko GAO), eta 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.

²³ Artikulu hau abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretuaren azken xedapenetako lehenaren bost. apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamendua onesten du. Foru dekretua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jartzen da indarrean (2020/12/23ko GAO), eta 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.

²⁴ Artikulu hau abenduaren 27ko 23/2022 Foru Dekretuaren azken xedapenetako lehenak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduan aldaketak sartu eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak zerga horretan eta sozietateen gaineko zergan kalkulatzeko 2023an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onesten ditu. Foru dekretua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jartzen da indarrean (2022/12/28ko GAO).



garapenean eragozpenak saihestearren. Horri dagokionez, Ogasun Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenek baldintza bereziak ezarri ahal izango dituzte baimen bakoitzerako.

Eragiketak faktura bidez dokumentatzen direnean erregelamendu honen I. tituluan xedatutakoaren arabera, eragiketak frogagiri bidez dokumentatzeko betebeharra bete dela joko da.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehen xedapen gehigarria. Fakturatzeko obligazioak beste esparru batzuetan.

Erregelamendu honetan xedatutakoa ulertuko da enpresari eta profesionalek merkataritza, finantza eta aseguru eremuan fakturak edo antzeko dokumentuak egin, eman eta gordetzeari buruz exijitzen diren gainerako betebeharrak eragotzi gabe, beren jarduera profesionalei aplikagarri zaien erregimenari, diru laguntza edo laguntza publikoei nahiz kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsari dagokionez.

Bigarren xedapen gehigarria. Energia elektronikoaren entrega jakin batzuk fakturatzeari.²⁵

1. Energia elektrikoaren ekoizpen merkatuarekin lotuta egiten diren energia elkartrukeak, Sektore Elektrikoari buruzko 24/2013 Legearen 28. eta 30. artikuluetan eta energia elektrikoaren ekoizpen merkaturako antolatu eta arautzen duen abenduaren 26ko 2019/1997 Errege Dekretuko 2. artikuluan aipatuak, sistemako operadoreak dokumentatu behar ditu Sektore Elektrikoaren Legean eta hura garatzen duten arauetan ematen zaizkion funtzioen arabera.
2. Energia elektrikoaren entregak entitate hornitzaileen izenean eta kontura egindako fakturekin dokumentatu behar ditu operadoreak, haien barruan erregelamendu honen 6. artikuluko 1. apartatuan aipatzen diren datu guztiak jasoz, eta eragiketaren hartzailea identifikatzen duten datuek sistemaren operadorea identifikatuko dute. Operadoreak fakturaren jatorrizko alea gorde behar du, eta hornitzaileari kopia bidali.
3. Sistemako operadoreak eskuratzailerako bakoitzari egindako entregengatik luzatu behar du faktura, haren barruan erregelamendu honen 6. artikuluko 1. apartatuan aipatzen diren datu guztiak jasoz, eta fakturaegilearen identifikazio datuek sistemako operadorea identifikatuko dute. Operadoreak fakturaren kopia gorde behar du, eta hartzaileari jatorrizko alea bidali.

²⁵ Xedapen hau ekainaren 27ko 15/2017 Foru Dekretuaren 2. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua eta fakturatzeko obligazioak arautzen dituen erregelamendua aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2017/06/29ko GAO).



4. Sistemako operadoreak gorde behar dituen dokumentuak, xedapen gehigarri honen aurreko apartatueta aipatuak, fakturatzat hartuko dira erregelamendu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, eta, preskripzio epeak dirauen bitartean, zerga administrazioaren esku geratuko dira fakturretan islatutako energia elektrikoaren entzegei buruz beharrezko egiaztapenak egin ditzan.

5. Sistemako operadoreak, hirugarren pertsonekin egindako eragiketen urteko aitortpena betetzen duenean zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuak ezarritako moduan, zerrendatu behar ditu energia elektrikoaren hornitzaileek egindako eragiketak eta eskuratzailerik egindakoak, xedapen gehigarri honen aurreko apartatueta xedatutakoaren arabera dokumentatuak beti; horrez gain, hornitzaile eta eskuratzailerik bakoitzeko, adierazi behar du zein den aitortzen den zergaldian egindako eragiketen zenbateko osoa. Hornitzaile bakoitzari egotzitako energia entregak erosketa gisa adieraziko dira, eta eskuratzailerik bakoitzari egotzitako eskurapenak, berriz, salmenta gisa.

6. Edonola ere, xedapen gehigarri honetan aipatzen diren eragiketei dagokienez, sistemako operadoreak zerga arloan garrantzitsua den edozein datu, txosten edo aurrekari eman behar dio Zerga Administrazioari eragiketa horiek modu egokian tratatzeko.

Fakturatutako epealdiko kobrantza eskubideak eta ordainketa obligazioak energia elektrikoaren entrega bakar bati lotuta egongo dira epealdi osoagatik.

7. Sistemako operadoreak hirugarren bat gaitu dezake entitate hornitzaileen eta eskuratzailerik artean kontraparte nagusi gisa jardun dezan; horrela, ondorio guztietarako ulertuko da entitate hornitzaileek hirugarren horri egiten dizkiotela energia elektrikoaren entregak eta, aldi berean, entitate eskuratzailerik hirugarren horri eskuratzen dizkiotela. Kasu horretan, eragiketaren hartzaileen eta faktura egilearen identifikazio datuen orde, kontraparte zentral gisa gaitu den hirugarren horrenak jarriko dira, eta hark bete beharko ditu kontraparte zentral gisa jarduteko gaitu duen operadoreari xedapen gehigarri honek ezartzen dizkion fakturazio obligazioak.

Hirugarren xedapen gehigarria. Zerbitzu prestazio jakin batzuk fakturatzeko bidaia agentziek bitartekari gisa esku hartzen dutenean beste batzuen izen eta kontura.

1.²⁶ Zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fakturak xedapen gehigarri honetan ezarritakoaren arabera egingo dira, prestazio horiek baldintza hauek betetzen dituztenean:

²⁶ Apartatu hau urriaren 30eko 27/2018 FORU DEKRETUaren 2.artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua eta fakturatzeko obligazioak arautzen dituen erregelamendua aldatzen ditu (2018/11/07ko GAO). Aldaketa honetan xedatutakoa 2018ko urtarilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.



a) Zerbitzu prestazioen kontratazioan esku hartzen duten enpresaburu edo profesionalak bidaia agentziak izatea, sektoreko arauak ezarritako moduan, eta agen-tzi-a horiek bitartekari gisa aritzea besteren izen eta kontura.

b) Hartzaileak, edozein dela ere, zerbitzuen faktura egiteko eskatzea bidaia agentziari.

c) Ematen diren zerbitzuak hauetako edozein izatea:

a') Bidaiarien eta haien bagajeen garraioa.

b') Ostalaritza, kanpamendua eta bainue-txea.

c') Jatetxea eta catering-a.

d') Garraiobideen epe laburreko errentamendua.

e') Museoetara, arte galeria, pinakoteka edo monumentuetara egiten diren ikustaldiak, eta, orobat, leku historiko, lorategi botaniko, zoologiko edo parke naturalak nahiz antzeko ezaugarriak dituzten beste naturgune babestuetara egindakoak.

f') Kultura, arte, kirol, zientzia, hezkuntza eta aisialdi alorreko ikuskizunetara nahiz azoka eta erakusketetara sar-tzea.

g') Bidaia aseguruak.

h')²⁷ Bidaia agentzien araubide berezia aplikatu behar zaien bidaia zerbitzuak.

2.²⁸ Faktura horietan jarraian aipatzen diren datu edo beharkizunak adieraziko dira, bestelako aipamenak sartzeko aukera baztertu gabe:

a) Berariaz adierazi beharko da bidaia agentziak xedapen gehigarri honetan jasotakoaren arabera egindako faktura dela.

b) Erregelamendu honen 6. artikuluan edo, kasua bada, 7. artikuluan aipatzen diren datu eta beharkizunak. Dena den, 6. artikuluen 1. apartatuko c), d) eta e) letretan eta 7. artikuluen 1. apartatuko d) letrean aipatzen den faktura egitera behartutakoaren datu gisa bidaia agentziaren datuak jarriko dira, eta ez bitartekaritza zerbitzua ematen duen enpresaburu edo profesionalarenak.

²⁷ h'letra hau ekainaren 25eko 18/2019 Foru Dekretuaren 2. artikuluko lau apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua eta fakturatzeko obligazioak arautzen dituen erregelamendua aldatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2019/06/28ko GAO), eta 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.

²⁸ Apartatu hau urriaren 30eko 27/2018 FORU DEKRETUAREN 2. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua eta fakturatzeko obligazioak arautzen dituen erregelamendua aldatzen ditu (2018/11/07ko GAO). Aldaketa honetan xedatutakoa 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.



c) Horrez gain, egiten diren fakturetan erreferentzia argi bat jaso beharko da haietan dokumentatzen diren zerbitzu guztiak identifikatzeko, eta eragiketen hartzaileari buruzko aipamenak ere jaso beharko dira, 6. artikulua 1. apartatuko c), d) eta e) letretan ezarritakoaren arabera. Orobat, faktura horiek gainerakoetatik aparte egingo dira, beste serie batean.

3.²⁹ Bidaia agentziak besteren izen eta kontura hartzaileari eskaintzen dizkion bitartekaritza zerbitzuak xedapen gehigarri honetan aipatzen diren fakturen bidez ere dokumentatu ahal izango ditu agentziak. Kasu horretan, erregelamendu honetan jasotakoaren arabera bitartekaritza zerbitzuari buruz jaso behar diren datuak bereizita adieraziko dira dagokion fakturan.

4. Enpresari edo profesional desberdinek hartzaile berberari hilabeteko epean egindako zerbitzuak faktura berean dokumentatu ahal izango ditu bidaia agentziak.

5. Aurreko apartatuetan ezarritakoaren kaltetan gabe, xedapen gehigarri honetan esandakoari jarraiki bidaia agentziek egiten dituzten fakturei Erregelamendu honetan ezarritako aurreikuspenak aplikatuko zaizkie.

6. Faktura hauek egiten dituzten bidaia agentziek Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 63. artikuluan aurreikusten duen egindako fakturen erregistro liburuan idatziko dituzte.

Erregistro liburuan haien oharra hartzeko unean, xedapen honen 1 apartatuko eragiketei dagozkien zenbatekoak 3 apartatuko zerbitzuei dagozkien zenbatekoetatik eta beste dokumentu edo faktura batzuetan jasotako eragiketen zenbatekoetatik bereizteko moduan adieraziko dira.

7.³⁰ Faktura hauek egiten dituzten bidaia agentziek honako informazioa adierazi beharko dute hirugarren per-tso-nekin egindako eragiketen urteko aitortzean:

a) Salmenta kontzeptuan, fakturen bidez dokumentatutako zerbitzuei buruzko informazioa, behar bezala bereizita.

b) Erosketa kontzeptuan, besteren izen eta kontura jardunez bitartekari gisa parte hartutako zerbitzu prestazioen informazioa, xedapen honetan aipatutakoena, behar bezala bereizita.

²⁹ Apartatu hau urriaren 30eko 27/2018 FORU DEKRETUaren 2.artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua eta fakturatzeko obligazioak arautzen dituen erregelamendua aldatzen ditu (2018/11/07ko GAO). Aldaketa honetan xedatutakoa 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

³⁰ Apartatu hau urriaren 30eko 27/2018 FORU DEKRETUaren 2.artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua eta fakturatzeko obligazioak arautzen dituen erregelamendua aldatzen ditu (2018/11/07ko GAO). Aldaketa honetan xedatutakoa 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.



8. Xedapen gehigarri honetan aipatutako fakturak egiten dituzten bidaia agentziek zerga arloan garrantzitsua den edozein datu edo aurrekari eman beharko diote zerga Administrazioari bertan dokumentatzen diren zerbitzu prestazioei dagokienez.

Laugarren xedapen gehigarria. Ekainaren 15eko 61/2004 Foru Dekretuari, faktura egiteko obligazioak arautzekoari, egindako erreferentziak.

Ekainaren 15eko 61/2004 Foru Dekretuari, faktura egiteko obligazioak arautzekoari, egindako erreferentziak Erregelamendu honi egindakoak direla ulertuko da.

Bosgarren xedapen gehigarria. Energiaren Batzorde Nazionalak fakturak egitea argindarra banatzen dutenen edo erregimen berezian produzitzen dutenen edo haien ordezkarien izen eta kontura.

1. Energiaren Batzorde Nazionalak entitate ekoizleen edo haien ordezkarien izen eta kontura egindako fakturen bidez dokumentatuko da Batzorde horrek elektrizitatea erregimen berezian produzitzen dutenen prima baliokideak, primak, pizgarriak eta osagarriak likidatu eta ordaintzeko duen funtzioa, argindarra erregimen berezian produzitzeko jarduera arautzen duen maiatzaren 25eko 661/2007 Errege Dekretuak 30. artikuluan hari esleitutakoa.

Orobat, Energiaren Batzorde Nazionalak fakturak egin beharko ditu argindarra banatzen dutenen izen eta kontura, aipatutako Batzordeak ordaintzeko errekerimenduak egin dituenen maiatzaren 25eko 661/2007 Errege Dekretuaren 30. artikuluan eta apirilaren 3ko 485/2009 Errege Dekretuan (argindarraren sektorean azken buruko hornikuntza martxan jartzea arautzen duenean) zazpigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren prima baliokide, prima, pizgarri eta osagarriengatik, eta errekerimendu horiek banatzaileek kontsumitzaileei kobratu dizkietenean.

2. Aurreko apartatuan aipatu diren fakturetan jaso beharrekoak izango dira Erregelamendu honen 6.1 artikuluan adierazitako datu guztiak, honako hauek izan ezik: hartzailearen identifikazio datuak ekoizleen edo ordezkarien kontura egindako fakturetan, eta faktura egilearen datuak banatzaileen kontura egindako fakturetan. Bi kasuotan, datu horien ordezkariak Energiaren Batzorde Nazionalaren identifikazio datuak jarriko dira.

Energiaren Batzorde Nazionalak jatorrizko fakturak gorde behar ditu, eta banatzaileari eta ekoizleari, edo hala badagokio, haren ordezkariari, kopia bat bidali.

Energiaren Batzorde Nazionalak horrela egin eta gordetzekoak diren fakturak zerga Administrazioaren esku geldituko dira haien preskripzio epean, haietan islaturiko hornikuntzei buruz beharrezkoak gerta daitezkeen egiaztapenak egiteko.



3. Hirugarren pertsonekin egindako eragiketen urteko aitortpena betetzean, Energiaren Batzorde Nazionalak jasota utzi behar ditu argindar produzitzaileek, ordezkariak eta banatzaileak egindako eragiketak, xedapen gehigarri honetan ezarritakoaren arabera dokumentatu badira. Aitortzen den epealdian egindako eragiketen zenbateko osoa adieraziko du Batzordeak produzitzaile, ordezkari edo banatzaile bakoitzeko. Xedapen gehigarri honetan aipatutako prima baliokide, prima, pizgarri eta osagarriak dagokienez produzitzaile edo ordezkari bakoitzari erregimen berezian egotzitako argindar hornitzeak erosketa gisa adieraziko dira, eta banatzaile bakoitzari jakinarazitako ordainketa errekerimenduak salmenta gisa.

4. Xedapen gehigarri honetan jasotakoak ez du kentzen Energiaren Batzorde Nazionalak bestelako dokumentazioa egitea berak jaulkitako ordainketa errekerimenduengatik (BEZa edo antzeko zerga bat sartuta), eta kasua bada, dokumentazio hori banatzaileei bidaltzea, maiatzaren 25eko 661/2007 Errege Dekretuaren 30. artikuluan eta apirilaren 3ko 485/2009 Errege Dekretuaren zazpigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren prima baliokide, prima, pizgarri eta osagarriak dagokienez.

5. Fakturatutako epealdiari dagozkion kobrantza eskubideak eta ordainketa obligazioak argindar hornitze bakar bati lotuta egongo dira, epealdi osorako.

6. Nolanahi dela ere, eta xedapen gehigarri honetan aipatzen diren eragiketei dagokienez, Energiaren Batzorde Nazionalak zerga arloan garrantzitsua den edozein datu, txosten edo aurrekari eman behar dio Zerga Administrazioari eragiketa horiek modu egokian tratatzeko.

Seigarrena.³¹

Erregelamendu honen 3. artikuluko 2. apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, Bankuen Berregiturazetik Eratorritako Aktiboak Kudeatzeko Sozietatea (SAREB) kreditu entitatetzat hartuko da.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa. Hirugarren batek fakturak egitea edo gordetzea komunikatzea.

Erregelamendu honen 5. artikuluen 4. apartatuan eta 19. artikuluen 4. apartatuan ezarritakoari dagokionez, zergapekoak ez du beste komunikazio berriazko bat egin beharko, aldez aurretik Ogasun Zuzendaritza Nagusiak baimena eman badu fakturak hirugarren batek egin eta gorde ditzan edo

³¹ Xedapen gehigarri hau otsailaren 4ko 2/2014 FORU DEKRETUaren artikuluko bakarreko bost apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak fakturatzeko obligazioak arautzen dituen Erregelamendua, 2013ko otsailaren 26ko 8/2013 Foru Dekretuak onartutakoa, aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean (2014/02/11ko GAO) eta 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.



baimena eskatzeko prozedura hasita badago, ekainaren 15eko 61/2004 Foru Dekretuak, faktura egiteko obligazioak arautzekoak, ezarritakoaren arabera.

Aurreko paragrafoan aipatutako baimen eskaerak, Erregelamendu hau indarrean sartzen denean dagoeneko eginda badaude, komunikazioak direla ulertuko da, eta komunikazio horiek une horretan egin direla ulertuko da, salbu, komunikaziogileari jakinarazten bazaio aurkeztu duen dokumentazioa ez dela nahikoa, kasu horretan ulertuko baita dokumentazioa osatzen denean egin dela komunikazioa. Eskaera osatzeko dokumentazio osagarria aurkezteko errekerimendua Erregelamendu hau indarrean sartu eta hiru hilabeteko epean egin ahal izango da gehienez.

Bigarrena. Ordezko dokumentuak fakturekin ordeztea edo trukatzea.

1. Erregelamendu hau indarrean sartzen denetik aurrera, ekainaren 15eko 61/2004 Foru Dekretuak, faktura egiteko obligazioak arautzekoak, ezarritakoaren arabera egindako ordezkotako dokumentuak fakturekin ordeztu edo trukatu ahal izango dira 2. artikulua 2. apartatuko a) letran adierazitako kasuetan.
2. Dokumentu horiek ordezteko edo trukatzeko epea lau urtekoa izango da, dokumentu horietan dokumentatutako eragiketen sortzapen datatik kontatzen hasita.
3. Kasu horietan egiten den faktura ez da faktura zuzentzailezat hartuko.



ALDAKETAK

Honako zerrendan foru arauak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- **2/2014 FORU DEKRETUA, otsailaren 4koa, aldatzen duena fakturatzeko obligazioak arautzen dituen Erregelamendua, 2013ko otsailaren 26ko 8/2013 Foru Dekretuak onartutakoa (2014-02-11ko GAO).**
 - Bere artikuluko bakarrak aldaketa hauek egiten ditu:
 - 3. artikuluko 2. apartatua aldatzen du.
 - 6. artikuluko 1. apartatuaren p) letra gehitzen du.
 - 7. artikuluko 1. apartatuko i) letra aldatzen du.
 - 11. artikuluari 3. apartatua gehitzen du.
 - Beste xedapen gehigarri bat sartzen du, seigarrena.
- **13/2015 FORU DEKRETUA, maiatzaren 19koa, zerga betebeharrak formal jakin batzuk eta fakturazio arlokoak garatzen dituzten erregelamenduak aldatzen dituen (2015/05/29ko GAO).**
 - Prezeptu hauek aldatzen dira:
 - 3. artikuluko 1. apartatuko b) letra.
 - 6. artikuluko 1. apartatuko a) letra.
 - 16. artikuluko 1. apartatuko b) letra eta artikuluko horren 3. apartatua.
- **15/2017 Foru Dekretua, ekainaren 27koa, zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua eta fakturatzeko obligazioak arautzen dituen erregelamendua aldatzekoa (2017/06/29ko GAO).**
 - Prezeptu hauek aldatzen ditu:
 - 5. artikuluko 1. apartatua.
 - 18. artikulua.
 - Bigarren xedapen gehigarria.



- **27/2018 Foru Dekretua, urriaren 30ekoa, zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua eta fakturatzeko obligazioak arautzen dituen erregelamendua aldatzekoa. (2018/11/07ko GAO).**

- Bere 2. artikulua prezeptu hauek aldatzen ditu:
 - 15. artikularen 4. apartatuari bigarren paragrafo bat gehitzen zaio.
 - 18. artikulua.
 - Hirugarren xedapen gehigarriaren 1., 2., 3., eta 7. apartatuak.

- **18/2019 Foru Dekretua, ekainaren 25ekoa, zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua eta fakturatzeko obligazioak arautzen dituen erregelamendua aldatzekoa. (2019/06/28ko GAO).**

- Bere 2. artikulua prezeptu hauek aldatzen ditu:
 - 2. artikuluko 3. apartatua.
 - 3. artikularen 1. apartatuko a) letra.
 - 3. artikularen 2. apartatua.
 - h' letra gehitzen zaio hirugarren xedapen gehigarriaren 1. apartatuko c) letrari.

2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

- **32/2020 Foru Dekretua, abenduaren 22koa, TicketBAI betebeharrak garatzen duen Erregelamendua onesten duena. (2020/12/23ko GAO).**

- Bere azken xedapenetako lehenak prezeptu hauek aldatzen ditu, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin:
 - Bat. apartatuak 6. artikularen 1. apartatuko a) letrari 6. ordinala gehitzen dio.
 - Bi. apartatuak 14. artikularen 2. apartatuari c) letra gehitzen dio.
 - Hiru. apartatuak 26. artikularen 1. apartatuari azken paragrafo bat gehitzen dio.
 - Lau. apartatuak 27. artikulua gehitzen du.
 - Bost. apartatuak 28. artikulua gehitzen du.



- Sei. apartatuak 29. artikulua gehitzen du.

- **09/2021 Foru Dekretua, uztailaren 13koa, fakturatzeko obligazioak arautzen dituen Erregelamendua eta zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzekoa. (2021/07/15eko GAO).**

- Bere 1. artikuluko prezeptu hauek aldatzen ditu:
 - 2. artikuluko 2. eta 3. apartatuak.
 - 4. artikuluko 4. apartatuko b) eta d) letrak.
 - 6. artikuluko 3. apartatua.

2021eko uztailaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

- **12/2021 Foru Dekretua, urriaren 5koa, Zergen Foru Arau Orokorra garatzeko erregelamendu jakin batzuk aldatzen dituena (2021/10/08ko GAO).**

Bere 5. artikuluko prezeptu hauek aldatzen ditu, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin:

- 25. artikulua.
- 26. artikuluko 1. apartatua.

- **23/2022 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduan aldaketak sartu eta ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak zerga horretan eta sozietateen gaineko zergen kalkulatzeko 2023an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onesten dituena. (2022/12/28ko GAO)**

Azken xedapenetan lehenak 29. artikulua aldatzen du, argitaratzen den egunetik aurrerako ondorioekin.